



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko irailaren 4a

93. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Haurdunaldiaren borondatezko eteteak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan egitearen kostuari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina. (2. or.).
- Nafarroako Kontseiluari buruzko fiskalizazio-txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina. (21. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Haurdunaldiaren borondatezko eteteak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan egitearen kostuari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko apirilaren 15ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Kontuen Ganberak Haurdunaldiaren borondatezko eteteak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan egitearen kostuari buruz egindako fiskalizazio txostena, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea jakitun dela txosten horren edukariari buruz.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2013ko apirilaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Haurdunaldiaren borondatezko eteteak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan egitearen kostuari buruzko fiskalizazio-txostena, 2010eko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Haurdunaldiaren borondatezko etetea (HBE) (3. or.).
 - II.1. HBEari buruzko araudia (3. or.).
 - II.2. HBE motak (4. or.).
 - II.3. HBEa Nafarroan (4. or.).

III. Helburua, norainokoa eta mugak (8. or.).

IV. Ondorioak eta aholkuak (9. or.).

IV.1. Antsoaingo klinika pribatuan egiten diren HBE motak O-NOZen 2011n egitearen kostuaren zenbatespena (9. or.).

IV.2. O-NOZen zenbatetsitako kostuen eta Antsoaingo klinika pribatuan eta gisakoe-tan operazioak egiteak duen kostuaren arteko alderaketa (9. or.).

V. Antsoaingo klinika pribatuan egiten diren HBE-ek O-NOZen duten kostuaren zenbatespena, eta emakume bati zentro horretan edo HBEak egiten dituzten gainerako zentroetan operazio hori egiteak dakarren kostuarekiko erkaketa (11. or.).

V.1. Kostuak zenbateteko erabilitako metodologia (11. or.).

V.2. Antsoaingo klinika pribatuan egiten diren HBE motek O-NOZen duten kostuaren zenbatespena, eta zentro horri eta antzeko ordaintzen zaizkien tarifekiko konparazioa (11. or.).

Antsoaingo klinika pribatuak behin-behineko txostenari aurkeztu dizkion alegazioak (16. or.).

Osasun Departamentuaren behin-behineko txostenari buruzko alegazioak (18. or.).

Kontuen Ganberak Antsoaingo klinika pribatuak aurkeztutako alegazioei emandako erantzuna (19. or.).

Kontuen Ganberak osasun departamentuak aurkeztutako alegazioei emandako erantzuna (20. or.).

I. SARRERA

2012ko maiatzaren 16an Kontuen Ganberan erregistratu zen Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak egindako eskaera bat, Nafarroa Bai, Bildu-Nafarroa eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek sustaturikoa, non txostena eskatzen baitzen, ea haurdunaldiaren borondatezko eteteen (HBE) kostua merkeagoa izanen litzatekeen Antsoingo erietxe pribatuan osasun arlo publikoan baino.

Kontuen Ganberak 2012rako fiskalizazio-programan sartu zuen lan hau.

Lana kontu-ikuskaritzako teknikari batek eta kontu-ikuskatzaile batek egin zuten 2012ko azartik 2013ko otsailera bitartean, Ganberako zerbitzu juridikoen, informatikoen eta administratiboen laguntzarekin.

Lanean erabilitako datu guztiak bereiz landu dira, Datu Pertsonalen Babesari buruzko 15/1999 Lege Organikoak ezarritako baldintzak betez, betiere.

Txostenak lau atal ditu, sarrera honetaz gainera. Bigarren atalean Espainiako eta Nafarroako HBE-en inguruko alderdi orokorrak deskribatzen dira; hirugarren atalean txostenaren helburuak, norainokoa eta mugak azaltzen dira; laugarrenean, ateratako ondorioak eta gomendioak; eta bosgarren atalean, berriz, luzeago deskribatzen da aurreko ataleko ondorioak ateratzeko bide eman duen kostu-zenbatespena.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu Osasunbidea - Nafarroako Osasun Zerbitzuko (O-NOZ) langileei, bereziki Nafarroako Ospitaleguneko (NOG), Tuterako Reina Sofía Ospitaleko (RSO) eta Lizarrako García Orcoyen Ospitaleko (GOO) Ginekologia eta Obstetria Zerbitzuko buruei, bai eta Antsoingo erietxe pribatuko langileei ere.

II. HAURDUNALDIAREN BORONDATEZKO ETETEA (HBE)

II.1. HBEARI BURUZKO ARAUDIA

Espanian 1985eko uztailaren onetsi zen 9/1985 Lege Organikoa, Zigor Kodearen 417 bis artikulua aldatzen duena. Arau horretan ezarri zen ez zela zigorgarria izanen mediku espezialistek HBEak egitea, behar bezala onartutako zentro publiko edo pribatuetan, eta emakumeak berariaz baimena emanda, honako inguruabar hauetakoren bat gertatuz gero:

a) HBEa beharrezkoa izatea, bestela emakume haurdunaren bizia edo osasun fisiko nahiz psiki-

koa arrisku larrian jarriko litzatekeelako, eta hala jasorik egotea kasuan kasuko espezialitateko mediku batek (operazioa egin behar duenak ez, beste batek) emandako irizpenean.

b) Bortxaketa-delitu baten ondoriozko haurdun-tza izatea, HBEa haurdunaldiko lehen 12 asteen barruan egitea eta bortxaketa salatu izana.

c) Fetuak akats fisiko edo psikiko larriak izatea, operazioa egin behar duten medikuak ez diren bi espezialistak emandako irizpenaren arabera, eta abortua haurdunaldiko lehenengo 22 astean barruan egitea.

Lege hori indarrrik gabe utzi zuen Sexu eta Ugalketa Osasunari eta HBEari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoak.

Operazioa egiten duen profesionalari, lekuari eta adostasunari buruz arau berri horrek ezarritako baldintzak aurreko legearenak berak dira, baina hauxe gehitzen da: 16 eta 17 urteko emakumeen kasuan, haiei soilik dagokie baimena ematea, aldez aurretik egiaztatzen bada guraso, legezko ordezkari edo tutoretako bati, gutxienez, informazioa eman zaiola. Adierazten da, gainera, informazio hori eman beharrik ez dagoela adingabeak alegatzen baldin badu, funtsean, hala egiteak arazo larriak ekarriko litzatekeela: bortxa, mehatxak, hertsapenak, tratu txarrak, deserrotzea edo babesgabezia.

HBEa zigorgarria ez den inguruabarrak aldatu egin ziren lege horretan:

a) Emakumeak eskatutako HBEa: zilegi izanen da haurdunaldia etetea lehen 14 astean barruan, aldez aurretik emakumeari informazioa eman bazaio bere eskubideez eta jaso ditzakeen prestazio eta laguntza publikoez. Informazio hori ematen zaionetik operazioa egin arte hiru eguneko epea igaro behar da.

b) Arrazoi medikoengatiko HBEa: haurdunaldia eten ahal izanen da baldin eta:

- Ez bada 22 asteko haurdunaldia gainditu, haurdunaren bizia edo osasuna arrisku larrian badago, eta operazioa egin behar duena ez den mediku batek emandako irizpenean hala jasorik badago.

- Ez bada 22 asteko haurdunaldia gainditu eta fetuak anomalia larriak izateko arriskua badu, operazioa egin behar dutenak ez diren bi espezialistak emandako irizpenaren arabera.

- Biziarekin bateraezinak diren anomaliak aurkitzen bazaizkio fetuari, eta irizpen batean hala adierazten badu operazioa egin behar duena ez den espezialista batek; edo fetuari gaixotasun oso

larria eta sendaezina diagnostikatzen bazaio eta hala berresten badute, batzorde klinikoan bilduta, ginekologia eta obstetriziako edo jaio aurreko diagnostikoko bi espezialistak eta pediatra batek.

Aurrekoaz gainera, lege horrek zehazten du HBEa Osasun Sistema Nazionaleko zerbitzu-zorroan sartutako prestazioa dela eta emakume guztientzat eskuragarri izatea bermatu behar dela. Halaber, zuzenean esku hartu behar duten osasun arloko profesionalak horrelako operazioerik ez egiteko kontzientzia-eragozpena jotzeko eskubidea dutela ezartzen du. Erabaki hori aurretiaz eta idatziz jakinarazi behar dute, bakarka, eta emakume-ari tratamendua eta arreta eman behar diote operazioaren aurretik eta ondoren.

Legeak dioenez, aparteko arrazoiengatik osasun zerbitzu publikoak ezin badu prestazioa garatu eman, osasun arloko agintariak lurralde nazionalan kokaturik eta baimendurik dagoen edozein zentrotara joateko eskubidea aitortuko diote emakume-ari, eta idatziz konpromisoa hartuko dute prestazioa zuzenean ordaintzeko.

Legean jasorik dago, halaber, emakumeen eta haien datuen konfidentzialtasuna eta intimitatea bermatu beharko direla.

Ekainaren 25eko 825/2010 Errege Dekretuak partez garatu zuen lege hori, zehatzago arautu baitzituen gorago aipatutako batzorde klinikoaren eta HBErako baimena eman aurreko informazioaren ingurukoak.

Ekainaren 25eko 831/2010 Errege Dekretuak osatu egin zuen 2/2010 Legea; besteak beste, osasun zentro batek (publikoa edo pribatua) hone-lako operazioak egiteko onarpena jasotzeko bete behar dituen baldintzak ezarri zituen.

Estatuko araudi hori kontuan izanik, Nafarroak honako arauak onetsi zituen:

- 14/2010 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, 10/1990 Foru Legea aldatzen duena, haurdunaldiaren borondatezko etetea erantsiz emakume haurdunentzako gainerako prestazioei, legez aurreikusitako kasuetan.

- 73/2010 Foru Agindua, abuztuaren 3koa, legez aurreikusitako HBE kasuetan esku hartu behar duen batzorde klinikoaren eratzeko duena.

- 16/2010 Foru Legea, azaroaren 8koa, zeinaren bidez profesionalen erregistroa sortzen baita haurdunaldiaren borondatezko etendura dela-eta, eta 116/2011 Foru Agindua, urriaren 3koa, "Haurdunaldiaren borondatezko etendura dela-eta kontzientzia-eragozle diren osasun arloko langileen erregistroa" izeneko fitxategi informatizatua sor-

tzen duena. Lege horren aurka, Diputatuen Kongresuko Talde Popularrak konstituziokontraotasun errekurtsioa jarri zuen 2011ko otsailean, baina oraindik ebatzi gabe dago.

- 212/2001 Foru Dekretua, uztailaren 30ekoa, beste autonomia erkidego batzuetara osasun laguntza jasotzera bidalitako Osasunbideko gaixoen bidaietarako, ostaturako eta otorduetarako dietak arautzen dituena. Dekretu hori Estatuko araudia baino geroago onetsi ez bazen ere, aplikatu ahal zaie beste autonomia erkidego batzuetara operazioa egitera joaten diren emakumeei.

II.2. HBE MOTAK

Emakumea haurdunaldiko zein astetan dagoen, operazio ezberdina egiten da. Hala, mota hauek bereiz daitezke:

- HBE farmakologiko edo kimikoa: medikamentuak erabiltzen dira HBEa berez gerta dadin lortzeko. Haurdunaldiko bederatzi aste (zazpi, espezialista batzuen iritziz) betetakoan, ez da egin behar.

- Xurgapen edo legratu bidezko HBE kirurgikoa: haurdunaldiko 15 aste bete arte erabiltzen da teknika hori, anestesia erregionalarekin edo sedazioarekin. Oro har, ez dago ospitaleratu beharrik.

- Dilatazio eta hustuketa bidezko HBE kirurgikoa: operazio hori haurdunaldiko 16. astetik 19.era bitartean egiten da gutxi gorabehera. Anestesia orokorarekin egiten da, baina kasu gehienetan ez dago ospitaleratu beharrik.

- HBE kirurgikoa, erditzea eraginez: haurdunaldiko gainerako asteetan teknika hau erabiltzen da, anestesia orokorarekin, emakumea ospitaleratuta.

II.3. HBEA NAFARROAN

Zenbait egoeratan HBEa despenalizatu egin zen 1985ean. Hala ere Nafarroan 1985-1987 bitartean 10 operazio baizik ez ziren egin O-NOZen zentro publikoetan, legean jasotako kasuen babesean. Abortu natural edo berezkoak bai, egiten ziren bitarte horretan, eta gaur arte egin dira.

1986an elkarte batek kereila kriminala jarri zuen Bideko Ama Birjina Ospitaleko zuzendariaren eta hiru ginekologoren aurka, egindako operazioa ez omen zegoelako jasorik 9/1985 Legeko kasuetan. Epaiketa eztabaidatsuak lau urte iraun zuen eta azkenean absoluzioa eman zieten akusatu guztiei.

Orduetik hasi eta 2011. urtearen amaiera aldera arte ez zen Nafarroan HBE bat ere egin ez arlo publikoan ez pribatuan. Emakume batek araudian

jasotako legezko kasuetara bildu nahi bazuen, beste autonomia erkidego batera bidaltzen zuten (EAEra, Aragoira edo Madrilera, normalean).

Hona Nafarroako Gobernuak HBERik ez egiteko ematen zuen arrazoa, Osasuneko kontseilariaren 2004ko adierazpenen arabera: ginekologo nafarrak kontzientzia-eragozleak ziren eta ez zeuden prest halako operaziorik egiteko.

Baina 2010eko apirilean argitaratu zen gutun batean hamaika ginekologok esan zuten ez zegoela arrazoirik osasun arlo publikoan HBE aratuak antolatu ezin izateko, eta bazirela interbentzio horiek egiteko prest zeuden profesionalak.

Nafarroako Gobernuak gutun horri erantzun zion, Osasuneko kontseilariaren adierazpenen bidez, kontzientzia-eragozleak ez zirela ginekologoak, beste profesional talde batzuk baino, esate baterako anestesistak eta erizainak.

Horiek horrela, HBEari dagokionez kontzientzia-eragozleak diren osasun arloko profesionalen erregistroa sortzea erabaki zen. Ebakuntza-gelako erizaintzako eta anesthesiako langileentzat eta emaginentzat ere zabalik dago erregistro hori. Txosten hau egin denean pertsona bakarra egon da inskribaturik.

Bestalde, 2010eko maiatzaren 31ko bilkuran Nafarroako Gobernuak erabaki zuen konstituzio-kontrakotasun errekurtsua jartzea 2/2010 Legeari, osasun zerbitzuak antolatu eta emateko Nafarroaren eskumen eskusiboak urratzen zituelako, HBERako epeen sistema arautzeko bermeak "...emakume bakoitzaren egoerara egokitu gabeko idatzizko informazio hutsa..." zirelako, eta kontzientzia-eragozpenaren arauketa ere ez omen zelako Konstituzioaren arabera, bereziki operazioaren aurreko tratamendua eta arreta medikoa emateko egintzetan.

Konstituzio Auzitegiak errekurtsio hori izapidetzeko onartu zuen 2010eko ekainean, baina oraindik ez du ebatzi.

Nafarroan HBEaren egoera aldatu egin zen 2011ko urrian, haurdunaldiko 14. astera arte HBEak egiten dituen klinika pribatua inauguratu zenean Antsoainen (hala ere, emakumeek beste autonomia erkidego bateko zentro batera joatea aukera dezakete).

Aste horretatik aurrera operazioa egiteko beste autonomia erkidego batera joan beharra dago, klinika horrek ez duelako egiten.

Emakumeek prozedura estandarizatu hau bete behar dute HBEa egin diezaieten:

- Haurdunaldiko 14. astera arte.

Emakumeari laguntzeko zentro publiko (ELZ) batera joan eta hitzordua eskatu behar dute osasun-hezitzailearekin (erdi mailako teknikaria, osasun arloko fakultatiboen edo diplomadunen estamentuetan sartzeko gaitzen duen tituluetakoren bat eduki behar duena lanpostua eskuratzeko). Zentroan informazioa ematen diete haurra izateko edo HBEa egiteko aukerei buruz. Araudiak eskatzen dituen agiriak ematen dizkiete gutun-azal batean, eta, gutxienez 72 ordu igarotakoan, emakumeak erabakia har dezake.

Halaber, egun berean emakumeei ekografia egiten zaie, haurdunaldiko zein astetan dauden jakiteko. Emakumeak uko egin ahal dio proba horri. Nahitaez egin beharko du soil-soilik zalantza dagoenean haurdunaldiko 14 aste baino gehiago bete ote diren.

Gutxieneko 72 orduko epea igarotakoan emakumeak ELZra itzuli eta bere erabakia jakinarazten dio hezitzaileari. HBEa egiteko asmoa adieraziz gero, hezitzaileak deribazio-orria ematen dio, emakumeak nahi duen zentro pribatura joan dadin. Nafarroan gaur egun Antsoaingo klinika pribatura joatea eskainiko litzaioke, edo Zaragoza, Bilbo, Donostia nahiz Madrilera kliniken batera. Emakumeak klinika hautatu ondoren, ELZak berak ematen dio zentro pribaturako hitzordua.

HBEa egindakoan zentro pribatuak Prestazio eta Itun Zerbitzura bidaltzen du faktura.

Emakumea beste autonomia erkidego batera joan bada, berak eskatu behar du joan-etorriaren gastuak ordaintzeko Prestazio eta Itun Zerbitzuan, gastuok frogatu eta gero.

- Haurdunaldiko 14. astea gainditu denean.

Mediku batek jarri behar ditu abian izapideak, legeak horrela eskatzen duelako. Medikuek txostena egin ondoren (batzorde klinikoaren berrespen eta guzti, hala behar denean), emakumeari hitzordua ematen zaio honelako HBEak kudeatzeko ardura duen O-NOZeko pertsona batekin.

Hortik aurrera prozedura goian azaldutakoaren gisakoa da.

Prozeduraren deskribapena amaitzeko, esan beharra dago, O-NOZek adierazi digunez, HBEaren tramitazioari ekiten dioten emakumeetatik ehuneko bost inguruk atzera egiten dutela eta azkenean ez dutela operazio hori egiten.

Prestazio eta Itun Zerbitzuak kudeatutako faktura guztiak aztertutakoan, hona zenbat HBE finantzatu dituen Nafarroako Gobernuak 2010-2012 bitartean eta zenbateko gastua eragin duten:

	Nongo zentroa	Haurdunaldiaren 14. astera arte	Haurdunaldiaren 14. astetik aurrera	9/1985 Legeko kasuak	HBEak, guztira	O-NOZen gastua		
						HBEa	Joan-etorriak (1)	Gastua, guztira
2010	Donostia	299	0	0	299	109.075		
	Bilbo	5	1	2	8	4.480		
	Madril	5	17	18	40	31.863		
	Zaragoza	113	7	10	130	78.820		
	GUZTIRA	422	25	30	477	224.238	--	224.238
2011	Donostia	433	0	--	433	161.140		
	Antsoain	217	2	--	219	92.910		
	Bilbo	10	1	--	11	6.020		
	Madril	3	36	--	39	33.503		
	Zaragoza	239	5	--	244	131.555		
GUZTIRA	902	44	--	946	425.128	18.643	443.771	
2012	Donostia	12	0	--	12	4.260		
	Antsoain	823	19 (2)	--	842	352.360		
	Madril	0	23	--	23	24.250		
	Zaragoza	101	3	--	104	55.445		
	GUZTIRA	936	45	--	981	436.315	3.841	437.066

(1) 2010ean ez ziren bereiz erregistratzen HBE-etarako joan-etorrien gastuak Prestazio eta Itun Zerbitzuan, eta horregatik ezin izan da jakin zenbateko gastuak izan ziren kontzeptu horregatik.

(2) Operazio hauek Antsoainen hasi baina Bilboko klinika batean bukatu ziren. Guztiak Antsoaingo klinikak fakturatu zituen, bi klinikak enpresa-talde berekoak direlako.

Finantzaketa publikoa izan duten HBE horiez gainera beste batzuk egin dira, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak horrelako operazioei buruz urtero argitaratzen duen txostenaren arabera. Txosten horretan gaixoen profilaren gaineko datu estatistiko eta epidemiologikoak daude, bai eta operazioa egiten den baldintza sanitarioetako batzuen azalpena ere.

Autonomia erkidegoetan horrelako operazioak egiteko baimena duten zentroek jakinarazpen-buletina bidaltzen dute informazioa prestatu ahal izateko. Buletinean zehaztu egin behar da, gainera, operazioak finantzaketa publikoa duen ala ez.

Nafarroan 2010ean HBERik egin ez zenez, ez da gure erkidegoko zentrorik aipatzen zentro laguntzaileen artean. 2011ko datuetan, Antsoaingo klinikak egindako lana, klinika hori urrian zabaldu bazen ere, ez dago jasorik Ministerioari beren datuak jakinarazi dizkioten zentrozen zerrendan.

Aurrekoa kontuan izanik, hona hemen Nafarroako emakumeei 2010ean eta 2011n egindako HBE-en xehakapena (ez dago 2012ko daturik, txosten hau egin denean oraindik argitaratu gabe egon delako Ministerioaren txostena):

Finantzaketa publikoa jaso duten HBEak Ministerioaren txosteneko gainerako HBEak HBEak, guztira

	Finantzaketa publikoa jaso duten HBEak	Ministerioaren txosteneko gainerako HBEak	HBEak, guztira
2010	477	212	689
2011	946 (horietatik, Antsoainen egindako 219ak ez zitzaizkion Ministerioari jakinarazi)	117	1.063

Aurrekoaz gain, Ministerioaren 2011ko txosteneko datu adierazgarri batzuk emanen ditugu, Nafarroan HBEa egin zaien emakumeen profila zehazten eta haren bilakaera aztertzen laguntzen dutenak:

- Espainian 1.000 emakumeko 12,44ko HBE tasa dago eta Nafarroan 6,9koa.
- Espainian HBE-en ehuneko 97,28 egiten dira zentro pribatuetan, eta Nafarroan ehuneko 99,62.
- Espainian HBE-en ehuneko 90 egiten dira emakumeak eskatu duelako, eta Nafarroan, berriz,

ehuneko 91. Espainian HBEa egiteko hurrengo arrazoa emakume haurdunaren bizia edo osasuna arrisku larrian egotea da (ehuneko 7,3), eta Nafarroan, berriz, fetuak anomalia larriak izateko arriskua (ehuneko bost).

- Espainian eta Nafarroan hurrenez hurren HBE-en ehuneko 90 eta ehuneko 88 egin ziren haurdunaldiko 12. astea baino lehen.
- 2011n HBEa egin zitzaizen emakumeen nazionalitateak honela banatzen dira:

	Espainiarrak	Gainerako europarrak	Afrikarrak	Amerikarrak	Asiarrak	Guztira
Espainia	% 61	% 10	% 5	% 22	% 2	% 100
Nafarroa	% 55	% 9	% 5	% 30	% 1	% 100

Paziente gehienak espainiarrak dira bi kasuetan ere: espainiarrak ehuneko 61 dira Espainian eta ehuneko 55 Nafarroan. Kontuan hartu behar da, ordea, biztanleria osoan atzerritarrak ehuneko 14 direla Espainian eta ehuneko 12 Nafarroan.

- HBEa egin zitzaizen emakumeak honela banatzen dira adinaren arabera Espainiako lurraldean eta Nafarroan:

	<15 urte	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte	30-34 urte	35-39 urte	40-44 urte	>44 urte	Guztira
Espainia	% 0,4	% 11,9	% 22,1	% 23,0	% 21,3	% 15,1	% 5,5	% 0,5	% 100
Nafarroa	% 1,2	% 12,6	% 19,2	% 23,5	% 22,0	% 16,1	% 4,9	% 0,6	% 100

Ikus daitekeenez, portzentajeak parekoak dira bi kasuetan, eta gutxi gorabehera kasuen 65 metatzen dira 20 eta 34 urte bitarteko adinetan.

- HBEa egin zitzaizen emakumeen ikasketa maila ere badakigu. Hona, ehunekotan:

	Ikasketarik gabe	Lehen mailakoak	DBH eta baliokideak	Batxilergoa eta LH	Unibertsitatea	Ez dago jasota	Guztira
Espainia	2,3	22,2	35,6	25	11,7	3,2	100
Nafarroa	1,3	17,3	27,6	34	13	6,8	100

Ikus daitekeenez, Espainian DBHko ikasketak edo baliokideak dituzten emakumeek osatzen dute portzentajerik handiena, eta bigarren tokian daude Batxilergoko edo Lanbide Heziketako ikasketak dituztenak. Nafarroan ere bi portzentaje horiek dira handienak, baina alderantzizko hurrenkeran.

• Azkenik, badira datuak HBEa egin zaien emakumeek haurdun ez geratzeko erabilitako metodo antikontzeptiboak buruz. Emaitzak honako hauek dira, ehunekotan:

	Metodo antikontzeptiboak erabiltzen dituzte	Ez dute metodo antikontzeptiborik erabiltzen	Ez dago jasota	Guztira
Espainia	43,1	31,8	25,1	100
Nafarroa	58,2	38,7	3,1	100

Kasu honetan datu deigarria da HBEa egin zitzaizen emakumeetatik ehuneko zenbatek ez zuten metodo antikontzeptiborik erabili haurdun ez geratzeko. Nafarroan ehuneko 39 dira, eta Espainiako lurraldean ehuneko 32.

Kontuan hartu behar da, halaber, Nafarroan HBEa egin zitzaizen emakumeen ehuneko 58k metodo antikontzeptiboren bat erabili zutela baina huts egin ziela; portzentaje hori Espainian ehuneko 43 da.

III. HELBURUAK, NORAINOKOA ETA MUGAK

Hauek dira txosten honen helburuak, Parlamentuak egindako eskariaren arabera:

- Kalkulatzeko zenbat kostako zen 2011n emakumeei HBEak O-NOZen egitea haurdunaldiko 14. astera arte, horietatik baitira Antsoaingo klinika pribatuan egiten diren HBEak.

- Emaitza alderatzea Antsoaingo klinikari eta mota bereko HBEak egiten dituzten gainerako zentroi 2011n ordaindutako tarifekin.

Egindako lanean alderdi hauek aztertu dira: HBE-ei buruzko araudia, Antsoaingo klinika pribatuari eta mota bereko HBEak egiten dituzten gainerako zentroi ordaindutako tarifak, Nafarroako Gobernuak 2010-2012 bitartean HBEak finantzatzeko erabilitako funts publikoak, eta Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak 2010eko eta 2011ko HBE-ei buruz argitaratutako txostena.

O-NOZen HBEak egitearen kostuak zenbatespenean, materialei, botikei eta langileei buruzko 2011ko datu ekonomikoak erabili dira, O-NOZen emandakoak. Kostuaren hurbilketa hori egin ahal izan da Nafarroan abortu natural edo berezkoak (pazienteak nahi gabe gertatzen direnak) egiten

direlako eta erabili behar litzatekeen prozedura antzekoa litzatekeelako.

Lan hau egiteko, honako printzipio eta arau hauei jarraitu zaie: Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsi eta Kontuen Ganberak bere fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren kontu-ikuskaritzari buruzko fiskalizazio-printzipioak eta fiskalizazio-arauak, lan honetarako bereziki egoki iruditu zaizkigun egokitzapenak eginik.

Honakoak izan dira lanaren garapenaren mugak:

- Zentro pribatuatan egiten diren HBE-erako baldintza eta prozesuak biltzen dituen itunik ez egoteak zaildu egin du erakunde horiek zer protokolori jarraitzen dioten azterzea. Horrek mugatu egin du ordaindutako tarifen eta O-NOZeko kostu zenbatetsiaren arteko alderaketa, ezin izan baita zehatz aztertu zein proba edo prozedura egiten diren zentro pribatuatan. Hala ere, Antsoaingo klinikak emandako informazioa erabili da lanerako, eta zentro horrek adierazitako prozedura guztiak sartu dira O-NOZeko kostu zenbatetsian.

- O-NOZen ez dago osasun prestazioen unitateko kostua ezagutzeko moduko kontabilitate analitikorik.

- Kostuen zenbatespenean ez dira zehatz-mehatz kalkulatu ebaluatutako prozedurarekin zerikusi zuzena ez duten kostuak, garrantzi txikia dutelako guztizko kostuaren barruan. Jardueran oinarrituta ez dauden banaketa-formulak erabili dira, horri buruzko informazioa lortzeko zailtasunagatik. Baliteke, horren ondorioz, zenbatetsitako zeharkako kostua zuzen-zuzena ez izatea. Hala ere, aldea ez litzateke adierazgarria izan, eta ez litzuke ondorioak aldaraziko.

- HBE mota bakoitzari egotzitako langileria-kostuan ordezkapenen gastua ere sartu da, O-

NOZek lanbide-estamentu bakoitzerako adierazitako portzentaje orokorra erabiliz, zentro bakoitzeko portzentaje berariazkoa kalkulatu gabe eta medikuntzako espezialitateak kontuan hartu gabe. Hala ere, esan liteke kalkulaturako datua arrazoizkoa dela eta lortutako amaierako zifraren gorabeherak ez liratekeela adierazgarriak izanen.

- Gaixoa artatzeko prozesu arruntaren kostu normalizatua zenbatetsi da. Ez dira kontuan hartu prozesu kirurgikoan gerta daitezkeen konplikazioak, ez direlako ohikoak honelako operazioetan.

Muga horiek gorabehera, O-NOZen dagoen informazioa eta bertako langileek emandako laguntza direla medio, Nafarroako arlo publikoan HBE bat egiteak izanen lukeen kostua zenbatetsi ahal izan da.

	BAO	RSO	GOO
HBE farmakologikoa	205	220	217
HBE kirurgikoa anestesia erregionalarekin	829	551	550
HBE kirurgikoa sedazioarekin	893	616	644

Ez dago aztertutako zentroen arteko alde adierazgarriak HBE farmakologikoaren kostuaren zenbatespenean.

HBE kirurgikoetan, aldiz, RSOk eta GOOk badute aldea BAOekin, diseinatutako arreta-protokoloak ezberdinak direlako. BAOen aurreikusten da pazienteak 24 ordu eginen dituela ospitalerata, eta beste bi ospitaleetan, berriz, operazioaren ondoren ordu batzuk baino ez dituela eginen ospitalean. Protokoloari jarraituz egonaldi laburrago hori egiten dute pazienteek kasuen ehuneko 99tan, Ministerioak HBE-ei buruz egindako txostenean azaltzen denez.

IV.2. O-NOZEN ZENBATETSITAKO KOSTUEN ETA ANTSOAINGO KLINIKA PRIBATUAN ETA GISAKOETAN OPERAZIOAK EGITEAK DUEN KOSTUAREN ARTEKO ALDERAKETA

HBE farmakologikoaren kasuan izan ezik, erkaketan ez dira kontuan hartu BAOen lortutako datuak, operazioaren ondoren ospitalean ematen den denborari dagokionez alde adierazgarriak daudelako O-NOZeko profesionalek diseinatutako protokoloaren eta zentro pribatuetan erabiltzen

IV. ONDORIOAK ETA AHOLKUAK

Atal honetan, egindako lanetik atera ditugun ondorio eta aholku nagusiak bildu ditugu:

IV.1. ANTSOAINGO KLINIKA PRIBATUAN EGITEN DIREN HBE MOTAK O-NOZEN 2011N EGITEAREN KOSTUAREN ZENBATESPENA

Antsoaingo klinika pribatuan haurdunaldiko 14. astera arteko HBEak egiten dira, mota honetakoak: farmakologikoa, kirurgikoa anestesia erregionalarekin, eta kirurgikoa sedazioarekin. HBE mota horiek hartu dira oinarritzat O-NOZeko kostua kalkulatzeko (eurotan), Parlamentuak egindako eskararen edukia ikusirik; emaitza hauek lortu dira:

den protokoloaren artean, Antsoaingo klinika pribatuak adierazi duenez.

Zentro pribatuekin itunik sinatu ez izanak zaildu egin du konparazioa: gehienetan ezin izan da jakin zein proba edo prozedura (hasierako kontsultak, berrikuspenak eta abar) zeuden sartuta zentrotrei ordaindutako tarifyan. Hala ere, baliozkotzat jo da Antsoaingo klinika pribatuak bere protokoloei buruz emandako informazioa, O-NOZeko kostuaren zenbatespenean zein prozedura sartu behar ziren eta zein ez zehazteko.

Ez zaio zentro pribatuetan kalkulaturako kostuari gehitu, halaber, Prestazio eta Itun Zerbitzuaren kudeaketaren kostua, ez eta operazioa beste autonomia erkidego batzuetan egiteko joan-etorrien gastuak ere.

Aurrekoa kontuan izanik, emaitza hauek lortu dira:

- HBE farmakologikoa: O-NOZen zenbatetsitako kostua (eurotan) ez da operazio bera zentro pribatuetan egiteak dakarren kostuaren erdira ere iristen, behean ageri den bezala:

	BAO	RSO	GOO	Kostua Antsoaingo klinikan, Bilbon, Donostian eta Madrilan
HBE farmakologikoa	205	220	217	454

• HBE kirurgikoa anestesia erregionalarekin: O-NOZen zenbatetsitako kostua, eurotan, pazientea Antsoaingo klinikara, Donostiara edo (haurdunaldiko 11. astearen ondoren) Bilbora bidaltzearen kos-

tuaren parekoa da, eta Madrilekoa eta Bilboko baina handixeagoa, proportzio handiagoan edo txikiagoan, haurdunaldia zein astetan dagoen:

HBE kirurgikoaren mota	RSO	GOO	Antsoain	Donostia	Bilbo	Madril
7-14 aste + anest. erregionala			544			
11. astera arte + anest. erregionala	551	550		544	524	
12. astera arte + anest. erregionala						411
12-14 aste + anest. erregionala					574	538

Kasu honetan nabarmendu egiten da pazientea artatzeko protokoloan eta baliabideen kontsumoan zentro publikoen eta pribatuen artean dagoen aldea. Izan ere, sare publikoan operazioaren ondoren emakumeek batez beste 5,75 ordu ematen dituzte zentroan, eta Antsoaingo klinikari ordu-bete gehiago, bertako datuen arabera. Alde hori arlo publikorako zenbatetsitako kostuaren ehuneko 16 da, gutxi gorabehera.

• HBE kirurgikoa sedazioarekin: behean ikusten denez, O-NOZerako zenbatetsitako kostua (eurotan) apalagoa da operazioa zentro pribatuetan egiteak dakarren kostua baino; alde txikiagoa du Antsoaingo eta Donostiako klinikekin eta handixeagoa Bilbokoarekin:

HBE kirurgikoaren mota	RSO	GOO	Antsoain*	Donostia	Bilbo
11. astera arte + sedazioa				674	724
12-14 aste + sedazioa	616	644	674		774

* HBEa sedazioarekin egiten da pazientea adingabea denean edo medikuak hala gomendatzen duenean, antsietatea, arazo psikikoak eta abarrekoak direla-eta.

Berriz ere aipatu behar da operazioaren ondoko egonaldian arlo pribatutik publikora dagoen aldea: batez beste arlo pribatuan bi ordu eta arlo publikoan zazpi ordu. Alde hori kasu honetan arlo publikorako zenbatetsitako kostuaren ehuneko 14 da, gutxi gorabehera.

Atera ditugun ondorioak ikusirik, hauexek dira gure aholkuak:

• *Kontzientzia-eragozleen egungo erregistroaren arabera, badirudi honelako operazioak egiteko profesional faltarik ez dagoela. Beraz, kontuan hartu behar litzateke HBE farmakologikoak O-NOZeko zentro publikoetan egiteko aukera, kostu zenbatetsiaren eta zentro pribatuei prestazio horren truke ordaintzen zaion tarifaren arteko diferentzia ekonomikoa dela-eta.*

• *Aztertu behar litzateke, halaber, komeni ote den HBE kirurgikoak O-NOZeko zentro publikoetan egitea 14 aste baino gutxiagoko haurdunegi, kontuan izanik, aldagai ekonomikoez gain, ebakuntza-gelaren okupazioaren aukera-kostua edo giza baliabideen beharra.*

• *HBEak O-NOZeko zentro publikoetan egitea aukeratzen bada, behar duten laguntza guztia eman behar zaie horrelako operazioak egiten dituzten langileei.*

• *Txosten honetan aztertutako HBE motak arlo pribatuan egiten jarraitzea erabakitzen bada, itun egokia ezarri behar litzateke, prestazio bakoitzaren tarifa sartutako baldintza eta prozedurekin. Era berean gomendagarria litzateke beste horrenbeste egitea gainerako HBE-etarako.*

• *Sakonago aztertu behar da HBEa egiten zaion emakumearen profila, nahi gabeko haurduntzak saihesteko estrategia diseinatze aldera, inolako metodo antikonzeptiborik erabiltzen ez dutenen portzentajea kontuan izanik, eta hobetu egin behar dira sexu hezkuntza eta orientazioa.*

• *Kostuen sistema analitikoak ezartzen jarraitu behar da, O-NOZen egiten diren prozesuei buruzko datu fidagarriak lortzeko, erabakien hobekuntza ahalbidetzen baitute.*

V. ANTSOINGO KLINIKA PRIVATUAN EGITEN DIREN HBE-EK O-NOZEN DUTEN KOSTUAREN ZENBATESPENA, ETA EMAKUME BATI ZENTRO HORRETAN EDO HBEAK EGITEN DITUZTEN GAINERAKO ZENTROETAN OPERAZIO HORI EGITEAK DAKARREN KOSTUAREKIKO ERKAKETA

Antsoaingo klinika pribatuan egiten diren HBEak O-NOZen duten kostuaren zenbatespena eta zentro horretan edo antzeko zentroetan egiteak dakarren kostuarekiko erkaketa azalduko dira jarraian.

V.1. KOSTUAK ZENBATESTEN ERABILITAKO METODOLOGIA

Erabili den metodologiaren oinarria prozesuaren kostuan oinarritutako kalkulua da, prestazioaren kostu unitarioa lortzeko bidea ematen baitigu. Operazio motaren arabera zuzeneko eta zeharkako kostuak esleitzeko erabilitako irizpide nagusiak azaltzen dira Ganbera honek 2011ko urrian argitaratu zuen " Osasun arloko itunak. 2008ko eta 2009ko ekitaldiak" izenburuko txostenean.

Sistema horretan, pazienteak artatzeko protokoloa eta horren urrats bakoitzeko baliabide-kontsumoa diseinatzen dira zerbitzua ematen duten pertsonen zuzeneko laguntzarekin, izan ere pertsona horiek ezagutzen baitute ongien prozedura. Elkarrikiten bitartez gaixoak artatzeko prozesu hori diseinatzera iritsi beharra dago, eta baliabide bat-

zuk esleitzera (langileak, material suntsikorra, amortizazioa eta abar).

Zeharkako kostuen egozpenari dagokionez (esate baterako, Ospitaleko Zuzendaritza, Kontabilitatea edo Zerbitzu Zentralak), egiten dituzten jarduerak definitu beharko lirakeke, baliabideak esleitu beharko litzaizkieke eta kostu horiek zentroei banatu beharko litzaizkieke, horietako bakoitzak egindako jardueraren arabera.

Aipatu beharra dago ez dela goian deskribatutako sistema aplikatu, zeharkako kostuen kalkuluan elementu horrek kostuen amaierako zenbatekoan duen garrantzi txikiarengatik eta azalduko ezaugarriak dituen sistema bat aplikatzeak eskatuko lukeen ahaleginarengatik. Aurrean aipatutako txostenean Ganbera honek adierazi zituen banaketa-formulak erabili dira, eta kostuak zehaztasun handirik gabe egoztea ahalbidetu dute. Dena den, lortutako amaierako zenbatekoaren aldaketek ez lukete adierazgarriak izan behar.

V.2. ANTSOINGO KLINIKA PRIVATUAN EGITEN DIREN HBE MOTEK O-NOZEN DUTEN KOSTUAREN ZENBATESPENA, ETA ZENTRO HORRI ETA ANTZEKOEI ORDAINTZEN ZAIZKIEN TARIFEKIKO KONPARAZIOA

Gaixoak artatzeko protokoloa diseinatu aurretik, Prestazio eta Itun Zerbitzuaren fakturak erabiliz, Antsoaingo klinika pribatuan 2011n eta 2012an prozedura mota bakoitzaren bidez zenbat HBE egin diren zehaztu da. Hona emaitza:

	2011	2012
HBE farmakologikoa	83	325
HBE kirurgikoa anestesia erregionalarekin	92	388
HBE kirurgikoa sedazioarekin	42	110
Guztira	217	823

Ikus daitekeenez, HBE motaren araberako porzentajeak paretsukoak dira bi urteetan. Hala, HBE farmakologikoa operazio guztien ehuneko 39 inguru dira, anestesia erregionalarekin egiten diren HBE kirurgikoa ehuneko 44, eta gainerakoak, sedazioarekin HBE kirurgikoa, ehuneko 17.

V.2.1. HBE farmakologikoa

O-NOZeko langileekin bilerak egin eta gero, ondorioztatu da gisa honetako operazioak ospitaleko kontsultan egiten lirakekeela. Txosten honen

II.3 atalean arlo pribaturako deskribatutakoaren antzeko prozedura erabiliko litzateke. Ondoren, kontsulta batean emakumeari medikamentuak emanen litzaizkieke, eta gero berriuspen-kontsulta egiten litzateke HBEa ongi burutu dela egiaztatzeko.

Behar diren zuzeneko eta zeharkako baliabideak aztertutik, ebaluatutako arlo bakoitzean O-NOZeko kostuaren zenbatespena (eurotan) honako hau litzateke 2011n:

	BAO	RSO	GOO
Hasierako kontsulta hezitzailearekin	35,79	36,61	27,11
Ginekologiako kontsulta, ekografia	32,73	33,16	36,93
Ondorengo kontsulta hezitzailearekin	20,02	15,49	13,26
Medikamentuak emateko kontsulta	53,61	54,20	56,96
Ginekologiako berrikuspen-kontsulta, ekografia	32,73	33,16	36,93
Zuzeneko kostua O-NOZen, guztira	174,88	172,62	171,19
Zeharkako kostu berekia (%)	12,76	17,58	16,34
Osasun Departamentuaren zeharkako kostua (%)	1,92	3,95	4,64
Zeharkakoak, guztira (%)	14,67	21,53	20,98
Zuzeneko kostua + zeharkako kostua	204,95	219,98	216,64

Ikus daitekeenez, O-NOZen HBE farmakologiakoak batez beste 213,86 euroko kostua duela kalkulatu da.

Mota horretako HBEak arlo pribatuan egiteak

dakarren kostuak bi zati ditu: batetik prozesuaren hasieran, pazientea ELZetan artatzen dutenean, O-NOZi dagokion kostua, eta bestetik operazioa egiten duten zentro pribatuei ordaintzen zaien tarifa. Hona 2011rako lortutako emaitza:

	Kostuaren kontzeptua
Hezitzailearekiko hasierako kontsultaren batez besteko kostua O-NOZen, kontsuluten kopuruaren arabera ponderatua	35,48
Ginekologiako ekografia egiteko kontsultaren batez besteko kostua O-NOZen, kontsuluten kopuruaren arabera ponderatua	33,03
Hezitzailearekiko ondorengo kontsultaren batez besteko kostua O-NOZen, kontsuluten kopuruaren arabera ponderatua	18,85
Zuzeneko kostua O-NOZen, guztira	87,36
Zeharkako kostu berekia, batez beste (%)	13,81
Osasun Departamentuaren zeharkako kostua, batez beste (%)	2,43
Zeharkakoak guztira, batez beste (%)	16,24
Zuzeneko kostua + zeharkako kostua	104,30
Antsoaingo klinikari eta Bilboko, Donostiako eta Madrileko zentroein ordaindutako tarifa	350,00
O-NOZeko kostua + ordaindutako tarifa	454,30

Klinika pribatuen kostua 454,30 euro da, hots, O-NOZeko zentroetarako zenbatetsitako emaitzaren bikoitza baino gehiago.

Erkaketa horretan kontuan hartu behar dira zenbait inguruabar:

- Zentro pribatuetan kalkulaturako kostuari gehitu behar litzaizkioke Prestazio eta Itun Zerbi-

tzuko langileen administrazio eta kudeaketa lanen kostuak, eta, pazienteak beste autonomia erkidego batera jotzen badu, joan-etorrien gastuak ere erantsi behar lirateke: 2011n batez beste 75 euro paziente bakoitzeko.

- Aurreko zenbatespen horretatik honako hau nabarmendu behar da: zeharkako kostuetara hurbiltzeko erabilitako banaketa-formulak erabilia,

zuzeneko kostuaren portzentaje handia kalkulatzen da. Ziur asko, zenbatespen zorrotzagoa egiten balitz zenbateko txikiagoak aterako liriateke kontzeptu honengatik. Dena den, amaierako zenbatekoaren aldaketa ez litzateke oso handia izanen.

- Honelako operazioak egiteko baldintzak jasotzen dituen itunik ez egoteak, gorago esan denez, zaildu egin du erkaketa. Hala, aztertutako fakturretan ezin izan da egiaztatu zentro pribatu guztietan egiten ote diren ginekologiako hasierako kontsulta, haurdunaldiko unea zehazteko, eta O-NOZerako zenbatetsitako kostuan sartutako berriuspen-kontsulta.

Hala, adibidez, Donostiako zentroaren kasuan egiaztatu ahal izan da berriuspen-kontsulta tarifaren barruan sartzen dela, denbora tarte laburrean bi egunetako joan-etorrien gastuak daudelako paziente-kode berarekin; Bilboko klinikan, ordea, itxuraz ez da horrelako kontsultarik egiten, ez baitago joan-etorrien gastu bikoitz horien arrastorik.

Aurrekoa gorabehera, Antsoaingo klinika pribatuak emandako informazioa hartu da abiapuntutzat eta bai ginekologiako hasierako kontsulta bai ondorengo kontsulta sartu dira O-NOZerako kostu zenbatetsian, jakinik ere arlo publikoan gaur egun hasierako ekografia egiten zaiela emakume askori, edota Bilboko klinikan itxuraz ez dela berriuspen-kontsultarik egiten, eta agian prozeduraren zati horiek ez liriatekeela konparazioan sartzeko modukoak izanen.

V.2.2. HBE kirurgikoa anestesia erregionalarekin

O-NOZeko profesionalekin informazioa bildurik, kostu zenbatetsian sartuko liriateke goian aipatutako prozesuaren hasierako zatia gehi analitika estandarra egitea, ospitalean operazioa egitea, esnatze-gelako eta solairuko egonaldia eta geroko berriuspen-kontsulta. Hauek dira 2011ko emaitzak, eurotan:

	BAO	RSO	GOO
Hasierako kontsulta hezitzailearekin	35,79	36,61	27,11
Ginekologiako kontsulta	32,73	33,16	36,93
Ondorengo kontsulta hezitzailearekin	20,02	15,49	13,26
Laborategiko analitika	19,54	14,40	10,20
Operazioa eta esnatze-gela	254,16	242,98	240,18
Solairuko egonaldia	312,32	56,90	70,36
Ginekologiako berriuspen-kontsulta	32,73	33,16	36,93
Zuzeneko kostua, guztira	707,29	432,70	434,97
Zeharkako kostu berekia (%)	12,76	17,58	16,34
Osasun Departamentuaren zeharkako kostua (%)	1,92	3,95	4,64
Zeharkakoak, guztira (%)	14,67	21,53	20,98
Zuzeneko kostua + zeharkako kostua	828,89	551,42	550,46

Aurreko zenbatespen horretatik honako hau nabarmendu behar da: zeharkako kostuetara hurbiltzeko erabilitako banaketa-formulak erabilia, zuzeneko kostuaren portzentaje handia kalkulatzen da. Ziur asko, zenbatespen zorrotzagoa egiten balitz zenbateko txikiagoak aterako liriateke kontzeptu honengatik. Dena den, amaierako zenbatekoaren aldaketa ez litzateke oso handia izanen.

Lortutako zenbatekoan alde adierazgarriak ikusten dira zentroen artean, O-NOZeko ospitale bakoitzak bere protokoloa duelako. Hala, Reina Sofía eta García Orcoyen ospitaleen kasuetan kontuan izan da operazioaren ondoren pazienteak ez litzuzkeela 24 ordu emanen ospitalean, ordu

gutxi batzuk baizik, eta zenbatetsitako kostua ia berdina da (550 euro). BAOan, berriz, beharrezkotzat jo da ospitalean 24 ordu ematea, eta horrek nabarmen igo du kostua, 829 euroraino.

Pazienteak ospitalean ordu batzuk baino eman behar ez dituela dioten irizpide horri jarraitzen zaio Nafarroako emakumeak joaten diren zentro pribatuetan eta Espainiako gainerakoetan. Halaxe ageri da aurrean aipatutako Ministerioaren txostenean. Izan ere, 2010ean (ez dago 2011ko daturik) haurdunaldiko 13. astea baino lehen egindako HBE guztietatik ehuneko 99,8tan ez zen ospitaleratu beharrik izan. Portzentaje hori ehuneko 94 izan zen haurdunaldiko 13. astetik 16.era bitartean HBEa egin zuten pazienteentzat. Antsoaingo klini-

kak emandako informazioak ere gauza bera erakusten du, hots, anestesia mota honekin artatutako pazienteek batez beste ordubete ematen dutela zentroan.

Zentro pribatuetan mota honetako HBEa egite-

aren kostua honela osatzen da: prozesuaren hasierari dagokion O-NOZen kostu berekia gehi zentro pribatu bakoitzari ordaindutako tarifa. Hona hemen emaitzak, eurotan, O-NOZen 2011ko kostu berekiari dagokionez:

	Kostuaren kontzeptua
Hezitzailearekiko hasierako kontsultaren batez besteko kostua O-NOZen, kontsulten kopuruaren arabera ponderatua	35,48
Ginekologiako ekografia egiteko kontsultaren batez besteko kostua O-NOZen, kontsulten kopuruaren arabera ponderatua	33,03
Hezitzailearekiko ondorengo kontsultaren batez besteko kostua O-NOZen, kontsulten kopuruaren arabera ponderatua	18,85
Laborategiko analitikaren batez besteko kostua, determinazioen kopuruaren arabera ponderatua	16,39
Zuzeneko kostua O-NOZen, guztira	103,75
Zeharkako kostu berekia, batez beste (%)	13,81
Osasun Departamentuaren zeharkako kostua, batez beste (%)	2,43
Zeharkakoak guztira, batez beste (%)	16,24
Zuzeneko kostua O-NOZen + zeharkako kostua	123,87

Bestalde, honelako HBEak egiten dituzten zentro pribatuei tarifa hauek ordaindu zaizkie 2011n (eurotan):

HBE kirurgikoaren mota	Antsoain	Donostia	Bilbo	Madril
7-14 aste + anest. erregionala	420			
Gehienez 11 aste + anest.		420	400	
Gehienez 12 aste + anest.				287
12-14 aste + anest. erregionala			450	414

Mota honetako HBEak O-NOZen egiteak dakarren kostu zenbatetsiaren eta zentro pribatuetan lortutakoaren arteko konparazioa azaltzen da jarraian. Erkaketa ahalik eta homogeenoa izan dadin, baztertu egin da BAOko kostuaren zenba-

tespena, diseinatutako artapen-protokoloarekin dagoen aldeagatik, eta Ministerioak emandako datuak kontuan izanik, pazienteak ospitaleratu ordez artapen-prozesu ambulatorioa egitea hobesten baitute. Hauek dira 2011ko emaitzak, eurotan:

HBE kirurgikoaren mota	RSO	GOO	Antsoain	Donostia	Bilbo	Madril
7-14 aste + anest. erregionala			543,87			
Gehienez 11 aste + anest.	551,42	550,46		543,87	523,87	
Gehienez 12 aste + anest.						410,87
12-14 aste + anest. erregionala					573,87	537,87

Konparazio taula hori dela-eta, hauxe azpimarratu behar da:

- HBE mota honek arlo publikoan duen kostu zenbatetsia eta operazioak Antsoaingo eta Donostiako klinika pribatuetan egitearen kostua ia parekoak dira. Madrileko klinikaren kasuan, aldiz, kostu zenbatetsia O-NOZeko kostua baino apur bat apalagoa da, eta pazienteak haurdunaldiko zein astetan dagoen, alde hori handiagoa edo txikiagoa da.

- Zentro pribatuetarako lortutako kostuari gaineratu behar litzaizkioke, aurreko kasuan bezala, Prestazio eta Itun Zerbitzuko langileen kudeaketaren kostua eta, pazienteak beste autonomia erkidego batera jotzen duenean, joan-etorrien gastuak.

- Badira aldeak zentro pribatuek kobratzen dituzten tarifen artean, HBE farmakologikoaren kasuan gertatzen ez zirenak.

- HBE farmakologikoan gertatzen zen bezala, ezin izan da egiaztatu zentro pribatu guztietan egiten ote diren ginekologiako hasierako kontsulta eta berrikuspen-kontsulta. Donostiako zentroan bai, egiten da, joan-etorrietako gastuen erkaketak erakusten duenez, baina Zaragozan, Bilbon eta Madrilan ez.

Aurrean azaldutako irizpideari jarraituz, prozeduraren alderdi guztiak sartu dira Antsoaingo klinikak emandako informazioan oinarrituta, nahiz eta jakin kasuren batean bazitekeela prozeduraren zati guztiak sartuta ez egotea zenbait zentrotan.

- Arlo publikoaren eta pribatuaren arteko alde adierazgarria dago operazioaren ondoren pazienteak zentroan ematen duen denboran, eta badu eragina ematen den arreta motan. Profesionalek ezarritako protokoloaren arabera, batez beste RSOn pazienteak ordu erdi emanen luke esnatze-gelan eta bost ordu emanen lituzke solairuan, eta GOOn, hurrenez hurren, ordubete eta bost ordu. Antsoaingo klinika pribatuan erabiltzen den protokoloaren arabera, aldiz, batez beste pazienteak ordubete eman behar du zentroan.

Konparazioa eginda, alde hori arlo publikoan solairuko egonaldiaren kostua kentzea adinakoa da ia-ia, hau da, zenbatetsitako kostu osoaren ehuneko 16 kentzea adinakoa.

V.2.3. HBE kirurgikoa sedazioarekin

O-NOZeko profesionalek emandako datuak erabiliz zenbatetsitako kostuak aurreko atalean adierazitako osagai berak ditu, gehi anestesiatzeko kontsulta bat, eta pazienteak anestesiatzeko erabiltzen den materialaren kostu handiagoa. Hauek dira 2011ko emaitzak, eurotan:

	BAO	RSO	GOO
Hasierako kontsulta	35,79	36,61	27,11
Ginekologiako kontsulta	32,73	33,16	36,93
Hurrengo kontsulta hezitzailearekin	20,02	15,49	13,26
Anestesiako kontsulta	34,10	34,10	31,80
Laborategiko analitika	19,54	14,40	10,20
Operazioa eta esnatze-gela	274,84	259,34	282,45
Solairuko egonaldia	312,32	56,90	70,36
Berrikuspen-kontsulta	32,73	33,16	36,93
Zuzeneko kostua, guztira	762,07	483,16	509,04
Zeharkako kostu berekia (%)	12,76%	17,58%	16,34%
Osasun Departamentuaren	1,92%	3,95%	4,64%
Zeharkakoak, guztira (%)	14,67%	21,53%	20,98%
Zuzeneko kostua + zeharkako	893,09	615,73	644,19

Zenbatespen horretan aplikagarria izanen litzateke aurreko puntuan zeharkako kostuei buruz eta O-NOZeko zentroek egindako protokoloaren arabera ospitalean egin beharreko denboran zentroen artean dagoen aldeari buruz azaldutakoa.

Beste alde batetik, mota honetako HBEak zentro pribatuetan egiteak dakarren kostu zenbatetsiak osagai hauek izanen lituzke: O-NOZeko kostu berekia gehi zentro pribatu bakoitzari ordaindu beharreko tarifa. O-NOZek egin beharreko gastua

aurreko atalean kalkulaturakoaren parekoa litzateke, protokoloa aurreko bera delako. Tarifak, berriz, ezberdinak dira: Antsoaingo eta Donostiako klinika pribatuetan 550 euro eta Bilbokoan 600 edo 650 euro, pazienteak haurdunaldiko 11. astea gainditu duen ala ez.

Jarraian aurkezten den konparazio taulatik kanpo utzi da, aurreko arrazoi berberengatik, BAOrako lortutako zenbatespena. Hauek dira 2011ko emaitzak, eurotan:

HBE kirurgikoaren mota	RSO	GOO	Antsoain*	Donostia	Bilbo
Gehienez 11 aste + sedazioa	615,73	644,19		673,87	723,87
12-14 aste + sedazioa			673,87		773,87

* HBEa sedazioarekin egiten da pazienteak adingabea denean edo medikuak hala gomendatzen duenean, antsietatea, arazo psikikoak eta abarrekoak direla-eta.

Taula horretan alderdi hauek azpimarra daitezke:

- HBE mota honek arlo publikoan duen kostu zenbatetsia hura egiten duten zentro pribatuetakoa baino apalagoa da. Aldea txikiagoa da Antsoaingo eta Donostiako klinikekin eta handixeagoa Bilboko zentroarekin.

- Lehen gertatzen zen bezala, zentro pribatuetarako kalkulaturako kostuari gehitu behar litzazkioke Prestazio eta Itun Zerbitzuko langileen kudeaketa lanak eta, pazienteak beste autonomia erkidego batera jotzen badu, joan-etorrietako gastuak.

- Anestesia erregionalarekiko HBE kirurgikoaren kasuan baino oreka handiagoa dago zentroek kobratzen dituzten tarifen artean.

- Berriz ere ezin izan da egiaztatu zentro pribatu guztietan egiten ote diren ginekologiako hasierako kontsulta eta berrikuspenekoa. Donostiako zentroan bai, egiten da, joan-etorrietako gastuen erkaketak erakusten duenez, baina Bilbon ez.

Hala ere, Antsoaingo klinikak emandako informazioan azaldutako prozedura guztiak sartu dira.

- Aplikagarria litzateke arestian esandakoa, alegia, arlo publikoaren eta pribatuaren arteko alde adierazgarria dagoela operazioaren ondoren pazienteak zentroan egiten duen denboran, ematen den arreta motaren arabera. Kasu honetan bai RSO bai GOO pazienteak bi ordu emanen lituzke esnatze-gelan eta bost ordu solairuan, batez beste. Antsoaingo klinika pribatuan erabiltzen den protokoloaren arabera, aldiz, batez beste pazienteak bi ordu eman behar ditu zentroan.

Konparazioa eginda, alde hori arlo publikoan solairuko egonaldiaren kostua kentzea adinakoa da ia-ia, hau da, zenbatetsitako kostu osoaren ehuneko 14 kentzea adinakoa.

Azken batean, O-NOZen HBE farmakologikorako zenbatetsitako kostua pazienteak zentro pribatuetara bidaltzeak dakarren kostuaren erdia baino gutxiago da; sedaziopeko HBE kirurgikoarena apalagoa da, nahiz eta aurrekoa baino proportzio txikiagoan, eta anestesia erregionalarekiko HBE kirurgikoaren kostua ia berdina da.

Txosten hau Karen Moreno Orduña kontu-ikus-katzaileak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, indarrean den araudiak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2013ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

ANTSOAINGO KLINIKA PRIBATUAK BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTU DIZKION ALEGAZIOAK

Ohar orokorrak

1.- Parlamentu-taldeek osasun arlo publikoaren eta Antsoaingo klinika pribatuaren arteko konparazio-txostena eskatu dutenez, uste dut nahasgarria dela Madril, Bilbo, Donostia edo Zaragozako beste klinika batzuk aipatzea; klinika horiek, bestalde, hutsaren hurrengo lekua dute Nafarroako HBE-etan.

Nolanahi ere, Zaragozako klinikaren zuzeneko kostua Antsoaingo klinikarena baino handiagoa da 100 euro baino gehiagoko aldearekin, joan-etorrietarako 75 euroko gastua ere eskatzen du, eta ez du sozietateen gaineko zergarik ordaintzen (80

euro inguru HBE bakoitzeko). Beraz, 250 euro gehiago dira operazio bakoitzeko, urtean 25.000 euro, Zaragozara 104 paziente bidalita.

2.- Antsoaingo klinikako langile-kostuak guztizko gastuen %50 dira. Uste dut osasun arlo publiko kostuetan ere berdin izanen dela. EAEn espezialistaren kontsulta batek ambulatorioan 110 euroko kostua du eta ospitalean 180 eurokoa. Hala argitaratu da "El Correo" egunkarian, eta Osasuneko sailburuorde ohi J.N. Fernandezek kalkulatu du, Osasunbidean lan egin zuen nafar batek.

3.- Antsoaingo klinikak badu EGITEZKO ITUNA O-NOZekin. Bertan operazioen prezio orokorrak itundu ziren, behar adina berrikuspen egitea adostu zen eta larrialdietako zerbitzua ezarri zen aste-ko 7 egunetan eta eguneko 24 orduetan. Geroago klinikak konpromisoa hartu zuen berak zuzenean emanen zizkiola pazienteei medikamentu guztiak, idatzizko jarraibideak eta altako txostena, kostu erantsirik gabe.

4.- Txosten bateko ondorioak jaso den informazioan oinarrituta atera behar direla uste dut. Kostuen balorazioan ez litzateke alde batera utzi behar Bideko Ama Birjina Ospitalea, Nafarroako ospitale nagusia baita. Ospitale horrek ez du aldatuko bere lan-errutina, eta berak ase beharko luke Nafarroako HBE eskariaren %70, ekimen honek aurrera eginen balu.

Egunero pare bat pazienteek erabiltzen duten larrialdi-zerbitzuaren kostuak, batez ere HBE farmakologikoen kasuan, bisita horiek jaso beharra kentzen dio ospitaleko larrialdi-zerbitzuari. Ebaluatu egin behar da. Umetokia ongi hustu ez delako egin beharreko bigarren operazioen batez besteko tasa onargarria HBE-en % 5 inguru da, batez ere farmakologikoak direnean. Kostu hori ebaluatu beharra dago.

HBE farmakologikoa eta legea

831/2010 Errege Dekretuaren eranskin batean azaltzen da zer baldintza bete behar dituen zentro batek arrisku txikiko HBE-etarako onartua izateko, haurdunaldiko 14. astea baino lehen, eta arrisku handiko HBE-etarako. Errege dekretuak ez du atal berezirik ezarri HBE farmakologikorako.

HBE farmakologikoa egin nahi izanez gero, ALZ batek baimen egokia eskatu beharko luke; garbiketa kirurgikorako gunea eduki beharko luke, eta ebakuntza-gela, ebakuntza ondoko atsedengela, bihotzaren monitorizazioa, O2 sistema mugikorra edo finkoa, desfibriladorea, arnasteko laguntza, anestesia eta bizkortzeko laguntza.

Emakumeei laguntzeko zentro bakar batek ere ez ditu biltzen baldintza horiek, eta ezin diete arrisku txikiko HBE-etarako baimenik eman.

Antsoaingo klinikako protokoloa

• Historia klinikoa: paziente batek ere ez du historia klinikorik ekartzen ALZtik

• Ekografia: paziente batek ere ez du ekografia-rik ekartzen ALZtik

• Elkarrizketa: erizainarekin, operazioa zertan den azaltzeko

• HBE farmakologikoa: RU-486 pilula eman gure haurrean hartzeko eta 3 Cytotec pilula eman 24 ordu barru hartzeko

• HBE kirurgikoa: pazientea atsedengelara sartzen da lagunduta, eta gero ebakuntza-gelara. Ondoren jarraibideak eta larrialdietarako telefonoa ematen zaizkio.

• Botika analgesikoak, antibiotikoak eta oxitokoak ematen zaizkio eskura, dosi zehaztuta

• 2-3 aste barru berrikuspina egiteko hitzordua.

Ohar ekonomikoak:

– HBE farmakologikoaren kostua Antsoaingo klinikari

• Zuzeneko kostua O-NOZen 35,48€

• Zeharkako kostua 16,94€

• Tarifa 350,00€

• Sozietateen gaineko zergaren bidezko itzulketa 80,00€

Guztira 322,42€

– Anestesia erregionalarekiko HBE kirurgikoaren kostua

• Zuzeneko kostua O-NOZen 35,48€

• Zeharkako kostua O-NOZen 20,12€

• Tarifa 420,00€

• Sozietateen gaineko zergaren bidezko itzulketa 80,00€

Guztira 395,60€

– Sedaziopeko BHE kirurgikoaren kostua

• Zuzeneko kostua O-NOZen 36,00€

• Zeharkako kostua 30,00€

• Ordaindutako tarifa 550,00€

• Zergen bidezko itzulketa 80,00€

Guztira 536,00€

Zeharkako kostua: klinikak egiten ditu fakturak, eta O-NOZera bidaltzen ditu; bertan fakturak egi-aztatu eta ordaintzeko agindua eman besterik ez da egin behar.

Gogoeta bat "O-NOZ-eko kostuaren hurbilketa" dela-eta

Berezko abortuetan umetokiak enbrioia kanporatzen du edo enbrioia hila atxikitzen du barruan. Borondatezko abortuan enbrioia umetokitik atera behar da. Bi gauza dira, ezberdinak dituzte errutinak, konplexutasuna, arriskuak eta abar.

Antsoingo klinikak bere burua eskaintzen du BA, RS edo GO ospitaletara iristen diren berezko abortuetan legratu eta xurgapenak egiteko 420 euroko kostu unitarioarekin, ospitale horietako 828,29, 551,42 edo 550,46 euroko kostuen orde. Aurrezpena ederra da, ospitale horietako kirurgia prozesu sinpleetan aritzen diren profesionalak lan konplexuagoetan aritzeko aukera ere bai, itxarotzerrenda laburtzeaz gainera... Kontuan hartzeko alderdiak lirateke.

Ondorioak

1.- ELZek arrisku txikiko HBE-etarako akreditazioa eskatu behar dute RU pilula eman nahi badute.

2.- HBE farmakologikoak ELZetan eragiten dituen kostuei medikazioaren kostua gehitu behar zaie, 100 euro inguru.

Baloratu egin behar dira ospitaleetako larrialdietako kontsultak eta umetokia husteko egin behar diren legratuak, eta horien kostua.

3.- Antsoingo klinikarekiko ituna aldatzen bada, HBE kirurgikoak BAOko kostuarekin erkatu behar dira, bera delako ospitale nagusia eta HBEekin zerikusi handiena duena.

4.- Osasun arlo publikoko kostuak Antsoingo klinikako kostuak halako bi izanen dira.

OSASUN DEPARTAMENTUAREN BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI BURUZKO ALEGAZIOAK

Nafarroako Kontuen Ganberak haurdunaldiaren borondatezko eteteek (HBE) Osasunbidea - Nafarroako Osasun Zerbitzuan duten kostuari buruzko behin-behineko txostena igorri dio Osasun Departamentuari, aztertzeko eta alegazioak egin ahal izateko.

Ondorioz, honako alegazio hauek egin nahi zaizkie txostenean jasotako ondorio eta iritziei:

1. Txostenean adierazitako kostuen kalkuluari dagokionez, ez da zehaztu zer datu erabili diren horiek lortzeko, zer soldata profesional hartu diren erreferentzia gisa, profesional bakoitzarentzat zer denbora kontuan hartu den, aztertutako prozesuan osaera, absentismoaren kostua kontuan hartu den, lanbide-karrerari dagokiona kontuan hartu den, aparatuek kontsumitutako energia, tresneriaren eta eraikinen amortizazioa etab.; beraz, hori bada ere txostenaren ondorioak gehien baldintzatzen dituen alderdietako bat, hori txostenean ez sartzea muga bat izan da alegazio hauek egiteko.

2. Bideko Ama Birjina Ospitalea (BAO) obstetri- zia eta ginekologiako erreferentziako ospitalea dute Nafarroako biztanleen % 74,50ek, eta, beraz, jarduera handieneko ospitalea da. Tratamendu bakoitzari lotutako prozesu klinikoa irizpide erabat medikoari jarraituz ezartzen da, eta, ildo horretan, goragoko mailako irizpide klinikorik ezean, abortu- en tratamendurako ospitalean eman beharreko denbora zentroetako bakoitzean zehaztutakoa izanen da. Horregatik, Bideko Ama Birjina Ospitalea ez da inola ere baztertu behar HBE moten arteko konparazio-azterketetatik, zeren eta, HBEa barneratuz gero, hori egiteko modua eta legokiokeen kostua BAOraiko zehaztutakoak izanen bailirateke.

3. HBE kirurgikoak konplexutasun txikiko eba- kuntzak direnez, O-NOZeko ebakuntza-gelak, norma- lean oso teknifikatuak, horrelako operazioetara- ko okupatu beharra baloratu behar da, kontuan izanik ebakuntza konplexuetarako erabil daitezke- ela eta, gainera, ebakuntza-gela berekien solairua ez dela nahikoa kirurgia-eskari osoari aurre egite- ko. HBEak ituntzea, beste gauza batzuen artean, O-NOZen baliabideen eraginkortasuna hobetzen laguntzen duen neurritzat jo daiteke.

4. HBE farmakologikoei dagokienez, HBE-en kopuru osoan halakoek portzentaje handiagoa har dezatela helburutzat dute administrazio publiko zerbitzu-emaila guztiek, tartean O-NOZek. Nahiz eta ELZek beren gain hartzeko ahalmen logistikoa izan, jarduera hori ELZetan egiten diren beste batzuen bizkar egin behar da, eta kopurua handi- tzen bada ondorioak nabaritutako beste jardue- ra batzuetan. Gainera, HBE farmakologikoen pro- zesuen % 2 ingurutan fetuaren egozpenak huts egiten du eta legratu kirurgikoaren beharra dago. Horrek kostua handituko luke, eta aukera-kostuari dagokionez Bideko Ama Birjina Ospitaleko bloke kirurgikoaren gaineko eragina areagotuko luke.

Nolanahi ere, txostena oso egokia da atal zehatz hori ituntzeko prezioaren hobekuntza lortzeari begira.

5. HBEa ituntzeari dagokionez, Itunen Plana garatzeko esparruan aurreikusita dago ituna ezarzea 2013. urte honetan.

6. Gomendioaren hirugarren puntua dela-eta esan behar da hura ez dela ongi ulertzen zenbait arrazoirengatik. Batetik, ez duelako loturarik txostenean (13. orrialdea) azaldutako helburuekin, alegia, HBEak O-NOZen egitearen kostuak zenbates-tearekin eta emaitza Antsoaingo klinikari ordaindutako tarifekin alderatzearekin, eta bestetik, ez duelako zehazten zertaz ari den profesionalak laguntza eman behar zaiela dioenean. Ez dago esan beharrik O-NOZek betiere ahalik eta laguntza gehien ematen diela bere profesional guztiei. Beraz, ez litzateke horrelako gomendiorik jarri behar txostenean.

7. HBE zerbitzua eskatzen duten emakumeen profilaren arabera sexu-hezkuntza eta -orientazioa hobetzeari dagokionez (gomendioen 5. puntua), esan behar da ELZek, profil horien arabera berariazko programarik ez badute ere, gazteengan eragin berezia duten hezkuntza programak egiten dituztela. Beste alde batetik, Departamentuak, osasunaren sustapenerako eta prebentziorako diru-laguntza lerroaren bitartez (Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak kudeatzen du), diruz laguntzen du hainbat elkarteren jarduna, zailtasun bereziak dituzten kolektibo jakin batzuetako emakumeen familia-plangintza eta sexu-hezkuntza xede dituen. Hala, emakume etorkinentzat eta gutxiengo etnikoetako emakumeentzat hezkuntza jarduketak horiek egiten dituzten elkarteei diru-laguntza eman zaie. "Osasun-ekitatearen" aldeko proiektuok lehentasuna dute laguntza horien kudeaketan.

Eta, azkenik, eskerrak eman nahi dizkiogu Kontuen Ganberari Txosten hau egiteko egin duen ahaleginagatik, eta ziur egon dadila O-NOZen oso kontuan hartuko direla osasun sistema publikoaren kudeaketan hobekuntzak ekar ditzaketan gomendio guztiak.

Iruñean, 2013ko martxoaren 26an.

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

KONTUEN GANBERAK ANTSOAINGO KLINIKA PRIBATUAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI EMANDAKO ERANTZUNA

Antsoaingo klinika pribatuak aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, "HBE farmakologikoa eta legea" izenburuko oharra erantsi diogu gure txos-

tenari V.2.1 ataleko lehen lerrokadan. Halaber, HBE farmakologikoa egiten luketen zentroyen izenak aipatzen dituzten taulen izenburuak aldatu ditugu.

Aurkeztutako gainerako informazioari dagokionez, ondokoa adierazi behar dugu:

- EAEn espezialistaren kontsulta anbulatorioan 110 euro eta ospitalean 180 euro kostatzen dela aipatzen da, baina ez da zehazten zein urtetan, zein espezialitatetako, zein langilek parte hartzen duten, zer proba egiten diren, etab.

- Berriz diogu ez dagoela ezarrita inongo itunik Antsoaingo klinika pribatuari ordaintzen zaion tarifan sartzen diren prozedurak egiaztatu ahal izateko modukorik. Hori gorabehera, gure txostenean ageri den bezala, klinika horrek igorritako jarduketa-protokoloa kontuan hartu da operazio horiek O-NOZen egiteak ekarriko lukeen kostuarekiko erkaketa egiteko garaian.

- Gure txostenean adierazi bezala, Bideko Ama Birjina Ospitalea HBE kirurgikoen gaineko konparazioetatik baztertu da, bestela erkaketa ez litzatekeelako homogoneoa izanen eta ondorioek desitxuratu egin lezaketelako konparatu nahi den errealitatea. Gainera, berriz esan behar da BAOk diseinaturiko protokoloa ez dela Espainian erabiltzen, ezta Nafarroan ere, horrelako operazioak egiteko. Halaxe ageri da HBE-ei buruzko Ministerioaren txostenean eta Antsoaingo klinika pribatuaren protokoloan bertan

- Errepikatu behar diren operazioen batez besteko tasa onargarria ehuneko bostekoa dela aipatzen da. Ez da datu horren iturririk ez fidagarritasunik zehazten. Gainera, portzentaje hori ez da kostu normalizatu baten kalkuluan sartzeko bezain adierazgarria, eta horixe zen gure txostenaren helburua, beraren III. atalak dioen moduan. Gauza bera aplikatu behar litzateke aipatutako larrialdietako bisitei, ez baita paziente bakoitzeko tasarik aipatzen.

- Antsoaingo klinika pribaturako birkalkulatutako kostuen zenbatekoak okerrak dira, kostu batzuk erantsi behar liratekeelako (esate baterako ginekologiako kontsulta, beti egiten baita, pazientea klinikara ekografiarekin nahiz ekografiarik gabe joan), eta beste batzuk ez liratekeelako kostu txikiagotzat zenbatu behar, esate baterako sozietateen gaineko zergaren bidezko itzulketa (gainera, ez da horren kalkulua ezagutzen).

- Antsoaingo klinika pribatuak 420 eurotan fakturatzen dituen ebakuntza kirurgikoen eta O-NOZen lortutako emaitzen arteko erkaketan, klinika horretarako kalkulaturako kostua ez litzateke

420 euro, baizik eta gure txostenean jaso dena, ospitale publikoetarako egindako balorazioen kontzeptu berak kontuan hartuta.

- O-NOZeko HBE farmakologikoen kostuari medikazioaren kostua gehitu behar litzaiokeela aipatzen da, baina hori badago sartuta egindako zenbatespenean.

Hitz batez, alegazioen amaieran azaltzen diren ondorioek ez dute zorrotasun metodologikorik, eta ez dute frogatzen osasun arlo publikoaren kostuak Antsoingo klinikarenak halako bi direnik.

KONTUEN GANBERAK OSASUN DEPARTAMENTUAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI EMANDAKO ERANTZUNA

Osasun Departamentuak aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, ohar hauek egin nahi ditugu:

- Harrigarria da 1. puntuan aurkeztu den alegazioa, O-NOZeko Kostuen Unitatearekin egin diren bileretan zehaztu egin baitira alegazio horretan aipatzen diren datu guztiak eta unitate horrek hobekuntzarako proposatutako iradokizunak erantsi baitzaizkie. Ez dakigu Osasun Departamentuak bilera horien berririk izan duen ala ez, edo agian alegazioaren edukia hutsegite bat besterik ez da.

- Bigarren puntuko alegazioari dagokionez, gure txostenean adierazi bezala, Bideko Ama Birjina Ospitalea HBE kirurgikoen gaineko konparazioetatik baztertu da, bestela erkaketa ez litzatekeelako homogenea izan eta ondorioek desitxuratu egin lezaketelako konparatu nahi den errealitatea. Gainera, berriz esan behar da BAOk diseinaturiko protokoloa ez dela Espainian erabiltzen, ezta Nafarroan ere, horrelako operazioak egiteko. Hala xe ageri da HBE-ei buruzko Ministerioaren txostenean eta Antsoingo klinika pribatuaren protokoloan bertan.

- Hirugarren puntuko alegazioari dagokionez, jada gai horiek jorratu dira txosten honen III. atalean, gomendioei buruzkoan.

- Laugarren puntuko alegazioari dagokionez, BHE farmakologikoetan errepikatu behar diren operazioen batez besteko tasa onargarria ehuneko bi omen da. Ez da datu horren iturririk ez fidagarritasunik zehazten. Gainera, portzentaje hori ez da kostu normalizatu baten kalkuluan sartzeko bezain adierazgarria, eta horixe zen gure txostenaren helburua, beraren III. atalak dioten moduan.

- Seigarren puntuko alegazioari dagokionez, esan behar da Kontuen Ganberak egokitzat jotzen dituen gomendioak ematen dituela kudeaketa hobetze aldera, nahiz eta gomendiook zuzeneko loturarik ez izan txostenaren helburuekin. Bestalde, gure txosteneko hirugarren gomendioaren testuingurua zehaztu nahi genuke: kontuan izanik 80ko hamarkadan honelako operazioek zer nolako aurrekariak izan zituzten, Ganberak uste du O-NOZek HBEak arlo publikoan egitea hautatuko balu behar adinako laguntza eman behar litzaikeela operazio hauek egiteko prest leudekeen langileei. Azken horrek ez du esan nahi erakunde honek uste duenik O-NOZeko profesionalei, oro har, ez zaiela laguntzarik ematen.

- Azkenik, 7. puntuan dagoen alegazioa delata, nahiz eta dagoeneko badiren familia-plangintzaren eta sexu-hezkuntzaren arloko programak, uste dugu HBEa egiten duten pazienteen ezaugarrien azterketa sakonago bat lagungarria izan litzatekeela programen edukia hobetzeko eta arrisku handieneko taldeengana bideratzeko.

Ohar hauek eginik, behin betikotzat ematen dugu txostena.

Iruñean, 2013ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

Nafarroako Kontseiluari buruzko fiskalizazio-txostena, 2012ko ekitaldiko, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko apirilaren 29an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Kontuen Ganberak Nafarroako Kontseiluari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2012ko ekitaldikoa, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea jakitun dela txosten horren edukari buruz.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2013ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Nafarroako Kontseiluari buruzko fiskalizazio-txostena, 2012ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I.** Sarrera (21. or.).
- II.** Fiskalizazioaren helburua eta norainokoa (21. or.).
- III.** Nafarroako Kontseilua (22. or.).
 - III.1. Definizioa eta eginkizunak (22. or.).
 - III.2. Kideak (22. or.).
 - III.3. Araubide ekonomiko-finantzarioa eta aurrekontuei buruzkoa (22. or.).
 - III.4. Langileak (22. or.).
 - III.5. Araubidea (22. or.).
 - III.6. Nafarroako Kontseiluaren jardura (23. or.).
- IV.** Iritzia (23. or.).
 - IV.1. Urteko kontuak (23. or.).
 - IV.2. Legezketasuna (23. or.).

Eranskinak:

- I. Finantzen egoera-orriak (24. or.).
- II. Nafarroako Kontseiluaren aurrekontu-gastuaren bilakaera 2001-2012 epean (euro konstantetan) (27. or.).
- III. Nafarroako Kontseiluaren jardueraren bilakaera 2000-2012 epean (28. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Nafarroako Kontuen Ganbera honek Nafarroako Kontseiluaren 2012ko urteko kontuen erregularatasunaren fiskalizazioa egin du.

Fiskalizazio-lan hau Kontuen Ganberak 2013rako onetsitako jardura-programan sartu zen, eta auditoriako teknikari batek eta auditore batek osaturiko talde batek egin zuen 2013ko martxoan eta apirilean, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Eskerrak eman nahi ditugu Nafarroako Kontseiluko langileek lan hau egiteko eman diguten laguntzagatik.

II. FISKALIZAZIOAREN HELBURUA ETA NORAINOKOA

Lan hau eginez, ondoko puntuoi buruz dugun iritzia adierazi nahi dugu:

- Ea Nafarroako Kontseiluaren 2012ko kontuek zehazki islatzen duten, alderdirik behinenetan, erakunde horren 2012ko abenduaren 31ko ekonomia- eta finantza-egoera, aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak, eta orokorrean onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz prestatu diren horiek.

- Ea 2012an, Nafarroako Kontseiluaren jarduerari aplikatzekoa zaion legedia bete den.

Lanaren norainokoak Nafarroako Kontseiluaren 2012ko kontuak hartzen ditu. Kontu horiek honakoek osatzen dute: balantzea, aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria, emaitzen kontua, oroitidazkia, ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria eta eskudiru-fluxuen egoera-orria.

Lan hau sektore publikoaren auditoriari dago-kionez Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsiriko eta Kontuen Ganbera honek bere fiskalizazio-eskuliburuan garaturiko printzipioei eta arauei jarraituz egin da. Gure iritzian behar adina froga lortzeko eta aipatutako fiskalizazio-helburuak lortzeko beharrezkotzat jo ditugun auditoriako proba eta teknika guztiak aplikatu dira.

III. NAFARROAKO KONTSEILUA

III.1. DEFINIZIOA ETA EGINKIZUNAK

Nafarroako Kontseilua, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 28.ter artikulua definitzen duen bezala, Nafarroako Foru Komunitateko organo aholku-emaile nagusia da. Bere eginkizunen jardunean, Nafarroako Kontseiluak Espainiako Konstituzioa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoa eta gainerako ordenamendu juridiko guztia betetzen dela begiratuko du. Kontseiluaren irizpenek ezin izanen dute abagune edo komenientziari buruzko baloraziorik eduki.

Nafarroako Kontseiluak bere eginkizunak aurrera eramateko autonomia organiko eta funtzionala izanen du, bere objetibotasuna eta independentzia bermatuko badira. Berariazko eskumen-esparrua du eta Kontseiluko kideei aplikatzekoa zaien araubideak bidea ematen du kualifikazio tekniko zorrotza izan dezaten eta ziurtatzen du haien neutraltasuna eta inpartzialtasuna.

III.2. KIDEAK

Nafarroako Gobernuak lehendakariak izendatutako zazpi kidek osatzen dute Kontseilua; nafartasun politikoa eta gaitasun eta ospe aitortua duten legelarien artean hautatzen dira: bost Nafarroako Parlamentuak proposatzen ditu, bere kideen gehiengo osoaz hautatu ondoren; gainerako biak Nafarroako Gobernuak proposatzen ditu.

Kontseiluko gobernu- eta erabaki-organoa Osoko Bilkura da, kontseiluko kide guztiek osatua. Organo horrek hautatzen ditu lehendakaria eta idazkaria.

Nafarroako Kontseiluaren ordainsarien ereduak, Estatu Kontseiluarenak eta beste autonomia erkidego batzuetako kontseilu aholku-emaileenak ez bezala, ez du aintzat hartzen bere kideen profesionalizazioa, eta, hala, bertaratzeengatik dieten eta emandako zerbitzuengatik ordainsarien sistemaren bidez ordaintzen zaie.

III.3. ARAUBIDE EKONOMIKO-FINANTZARIOA ETA AURREKONTUEI BURUZKOA

Nafarroako Kontseiluaren aurrekontua programa independente gisa dago sarturik Nafarroako aurrekontu orokorretan.

Nafarroako Kontseiluak autonomia du bere gastuen egoera-orria prestatu eta betetzeko, aplikatzekoa zaien legediaren arabera, eta Nafarroako Ogasun Publikoa arautzen duten oinarri eta xedapenen mende dago. Bere aurrekontua eta kontuak

bere gisa aurkezten ditu, bere kontabilitatearekin, 2005ez gero.

Eduki ekonomikoko eskubide eta betebeharrak izatea edota funtsen edo baloreen mugimenduak egitea dakarren Nafarroako Kontseiluaren ekintza, dokumentu eta espediente oro Nafarroako Gobernuaren Kontu-hartzaitza Orokorraren kontrolaren mende dago.

Nominak Nafarroako Gobernuak prestatu eta ordaintzen ditu, eta Kontseiluari egindako transferentzia arrunt gisa erregistratzen ditu zenbatekoak. Kontseiluak, bere aldetik, zenbateko hori langileria-gastu eta diru-sarrerara arrunt gisa kontabilizatzen du bere aurrekontuan.

Nafarroako Kontseiluaren 2012 urterako aurrekontua 541.748 eurokoa da.

Gastuen betetzea ehuneko 58koa izan zen, eta 314.781 euro egiten zuen. Langileria-gastuak ehuneko 38 dira eta ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuak ehuneko 60.

Diru-sarrerak 385.861 eurokoak izan ziren, eta haien betetze-maila ehuneko 71koa. Diru-sarreraren ehuneko 99 Nafarroako Gobernutik jasotako transferentzia arruntak dira.

2012ko ekitaldiaren exekuzioaren emaitza gisa, superabit bat sortu zen, eta Foru Ogasunari 71.080 euro itzuli zitzaizkion.

III.4. LANGILEAK

Nafarroako Kontseiluaren 2012rako plantilla organikoak bi langile ditu, zeinak Nafarroako Gobernuak funtzionarioak baitira. Honako egoeran daude: legelari bat, zerbitzu eginkizunetan, eta idazkari bat, aldi baterako kontratuarekin.

III.5. ARAUBIDEA

Nafarroako Kontseilua arau hauen mende dago, besteak beste:

- Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa.

- Nafarroako Kontseilua sortu zuen martxoaren 16ko 8/1999 Foru Legea, abenduaren 10eko 25/2001 Foru Legeak eta abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak aldatu zutena.

- Otsailaren 28ko 90/2000 Foru Dekretua, Nafarroako Kontseiluaren antolamendu eta jardunbidearen Erregelamendua onesten duena, ekainaren 12ko 205/2000 Foru Dekretuak eta urtarrilaren 21eko 15/2002 Foru Dekretuak aldatu zutena.

- Ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea, kontratu publikoei buruzkoa.
- Apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.
- Abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legea, 2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

II.6. NAFARROAKO KONTSEILUAREN JARDUERA

2012an, Nafarroako Kontseiluak 42 irizpen-eskaera erregistratu zituen. Horietatik 20tan, espedientea osatu gabetzat jo zen eta dokumentazio osagarria eskatu zen. Bi espediente irizpena eman gabe geratu ziren, gainera, irizpena eskatutako agintariak erretiratzeko eskaturik, eta bat irizpena eskatutako agintaritzari itzuli zitzaion, Nafarroako Kontseiluaren antolamendu eta jardunbidearen Erregelamenduan agintzen diren baldintzetara egokitzen ez zelako.

2012an zehar 49 irizpen eman zituen Nafarroako Kontseiluak. Horietatik, 12 2011n eginiko eskaerei buruzkoak ziren, eta gainerako 37ak, berriz, 2012an eginiko eskaerei buruzkoak. 2000ean lanean hasi zenetik Kontseiluak izan duen jarduera txosten honen III. eranskinean jaso da.

Kontseiluak 2000-2012 epean emandako irizpen guztien ehuneko 44 legeak edo haien aldaketak betetzeko erregelamenduen proiektuei buruzkoak dira (2012an, irizpen guztien ehuneko 37 dira).

Ondoren beste hauek datoz: 120.202,42 eurotik gorako kalte-ordainen erreklamazioei buruzko irizpenak, ehuneko 13 guztira (2012an ehuneko 20), Administrazio-egintzak ofizios berraztertzeari buruzkoak, ehuneko 12 (2012an, ehuneko 24 izan ziren) eta alderdien artean Nafarroa duten lankidetzak-hitzarmenak eta akordioak, ehuneko 10 (2012an ez zen irizpen bat bera ere eman).

IV. IRITZIA

Eginiko fiskalizazioaren esparruan, Nafarroako Kontseiluaren 2012ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazio-orriak eta finantza-kontuak aztertu ditugu. Kontseiluaren ardurapean eginak dira, eta txosten honetako IV. atalean jaso dugu horien egoera. Halaber, II. eranskinean, Nafarroako Kontseiluaren gastuen aurrekontuaren likidazioak 2001-2012 epean izan duen bilakaera erakusten dugu.

Eginiko azterketatik eta berrikusitako laginetik honako iritzi hau ondorioztatzen dugu:

IV.1. URTEKO KONTUAK

Gure ustez, Nafarroako Kontseiluko 2012ko kontu orokorrak fidelki islatzen du alderirik behinenetan entitatearen ondarea, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa eta 2012ko abenduaren 31n zuen finantza-egoera, bai eta data horretan amaitu zen urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzak ere, aplikatzekoa zaion informazio finantzario publikoari buruzko arau-esparruari jarraikiz, bereziki, bertan jasotako kontabilitate printzipio eta arauak.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Nafarroako Kontseiluak 2012ko ekitaldian izan duen ekonomia- eta finantza-jarduera gaur egun indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera izan da, oro har.

Txosten hau Karen Moreno Orduña kontu-ikuskatzaileak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, indarrean den araudiak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2013ko apirilaren 19an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

1. Aurrekontuaren likidazioa

Gastuen Aurrekontuaren likidazioa

(Eurotan)

	Behin-behineko aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako betebeharrak	Ordaindutakoa
1. Langile-gastuak	181.304	181.304	120.480	120.480
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	321.444	321.444	189.791	189.791
6. Inbertsio errealak	39.000	39.000	4.510	4.510
Gastuak, guztira	541.748	541.748	314.781	314.781

Diru-sarreraren Aurrekontuaren likidazioa

(Eurotan)

	Behin-behineko aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako eskubideak	Kobratutakoa
4. Transferentzia arruntak	502.000	502.000	380.936	380.936
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	748	748	415	415
7. Kapital-transferentziak	39.000	39.000	4.510	4.510
Diru-sarrerak guztira	541.748	541.748	385.861	385.861

Aurrekontu-emaiza

(Eurotan)

Kontzeptuak	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebeharrak garbiak	Zenbatekoen aldea
1. Eragiketa ez-finantzarioak (1-7 kap.)	385.861	341.781	71.080
2. Finantza aktiboekiko eragiketak (8. kap.)	0,00	0,00	0,00
I. Ekitaldiko aurrekontu-emaiza (1+2)	385.861	341.781	71.080
II. Finantza-pasiboen aldaketa garbia	0,00	0,00	0,00
III. Ekitaldiko aurrekontuaren saldoa	385.861	341.781	71.080
IV. Ekitaldiko finantzaketa-superabita			71.080

2. Diruzaintza-gerakina

	(Eurotan)	
	Kontua	Zenbatekoa
Idiaren amaieran kobratzeko dauden zordunak		0
Aurrekontu korronteko diru-sarreraren aurrekontukoak	430	
Aurrekontu itxiko diru-sarreraren aurrekontukoak	431	
II. Ekitaldiaren amaieran ordaintzeko dauden hartzekodunak		6.109
Aurrekontu korronteko diru-sarreraren aurrekontukoak	400	
Aurrekontu itxiko diru-sarreraren aurrekontukoak	401	
Aurrekontuz kanpoko beste eragiketa batzuetakoak		6.109
Aurrekontukoak ez diren bestelako hartzekodunak	519	46
Foru Ogasun Publikoa hartzekodun, kontzeptu fiskalengatik	477	6.063
Ekitaldi amaierako funts likidoak	57	77.189
IV. Atxikitako diruzaintzako gerakina		0
V. Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (I-II+III-IV)		71.080
zako gerakina, guztira (IV+V)		71.080

3. Egoera-balantzea**AKTIBOA**

(zenbatekoak, eurotan)

Kontzeptua	2011	2012
AKTOBO EZ ARRUNTA	18.345	16.327
IBILGETU MATERIALA	18.345	16.327
Altzariak eta tresnak	6.945	5.786
Informazioa prozesatzeko tresneria	5.754	3.169
Irudi korporatiboa	1.876	938
Ibilgetu materiala	3.770	6.435
AKTIBO ARRUNTA	142.524	77.189
DIRUZAINZA	142.524	77.189
Bankuak eta kreditu-erakundeak	142.524	77.189
AKTIBOA, GUZTIRA	160.869	93.516

PASIBOA

(zenbatekoak, eurotan)

Kontzeptua	2011	2012
ONDARE GARBIA	160.869	87.407
Ondarea	18.345	16.327
Ekitaldiko emaitza	142.524	71.080
EPE LABURRERAKO HARTZEKODUNAK	0	6.109
Aurrekontukoak ez diren bestelako hartzekodunak	0	46
Foru ogasun publikoa, PFEZa dela eta	0	6.063
PASIBOA, GUZTIRA	160.869	93.516

4. Emaidza-kontua

Emaidza arrunten kontua

Zor		Hartzeko		(Eurotan)
120.480	Langile-gastuak	Diru-sarrera finantzarioak		415
189.791	Kanpoko lanak, hornikuntzak eta zerbitzuak	Transferentzia arruntak		380.936
6.527	Amortizazioa 2011	Ibilgetuetarako diru-laguntzen emaitze egozpena		6.527
71.080	Aurrezkia (emaidza positiboa)			
387.879	Guztira	Guztira		387.879

5. Eskudiru-fluxuen egoera-orria

	(zenbatekoak, eurotan)	
	2012	2011
I. KUDEAKETA-JARDUEREN ESKUDIRU-FLUXUAK		
A) Kobrantzak	265.426	346.484
Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	264.966	345.392
Kobratutako interesak eta dibidenduak	415	1.092
Beste kobrantza batzuk	46	
B) Ordainketak:	-183.728	-196.768
Hornidurak	61.683	77.080
Bertaratze-dietak eta kontseilarien irizpenengatiko ordainak	105.312	98.513
Bestelako kudeaketa-gastuak	16.732	21.175
Ordaindutako interesak		
Kudeaketa-jardueretako eskudiru-fluxu garbiak (+A+B)	81.699	149.716
II. INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRU-FLUXUAK		
C) Kobrantzak:		
Inbertsio errealen salmenta		
Finantza-aktiboen salmenta		
D) Ordainketak:	-4.510	-7.192
Inbertsio errealen erosketa	4.510	7.192
Finantza-aktiboen erosketa		
Inbertsio-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak (+C+D)	-4.510	-7.192
III. FINANTZAKETA-JARDUEREN ESKUDIRU-FLUXUAK		
E) Ondarean izandako gehikuntzak		
Ondareari egindako ekarpenak		
F) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari egindako ordainketak	-142.524	-86.261
Ekarpenen itzulketa eta emaitzen banaketa	142.524	86.261
Finantzaketa-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak	-142.524	-86.261
VI. ESKUDIRUAREN HANDITZE/GUTXITZE GARBIA		
Eskudirua ekitaldiaren hasieran	142.524	86.261
Eskudirua ekitaldiaren amaieran	77.189	142.524

6. Ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria

	(Eurotan)		
	Jarritako ondarea	Sortutako ondarea	Guztira
AMAIERAKO ONDARE GARBIA, 2011	18.345	142.524	160.869
EKITALDIKO ALDEAK	-2.018	-71.444	-73.462
Ekitaldian izandako aitortutako diru-sarrerak uak		71.080	
Ondare garbian izandako beste alde batzuk	-2.018	-142.524	
AMAIERAKO ONDARE GARBIA, 2012	16.327	71.080	87.407

II. NAFARROAKO KONTSEILUAREN AURREKONTU-GASTUAREN BILAKAERA 2001-2012 EPEAN (EURO KONSTANTETAN)

	(Eurotan)											
Gastuak (euro konstantetan)	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Langile-gastuak	86.532	126.123	129.229	129.151	131.060	138.039	134.659	137.224	138.870	127.728	131.134	120.480
1. kap. Langile-gastuak	86.532	126.123	129.229	129.151	131.060	138.039	134.659	137.224	138.870	127.728	131.134	120.480
Konpontze- mantentze- eta kontserbazio-lanak	0	54	513	885	1.080	794	696	4.108	8.886	290	961	1.176
Materiala, hornidurak eta beste	10.462	10.026	23.365	34.546	50.316	37.869	34.665	41.960	40.302	106.801	56.296	46.833
Zerbitzuaren ondoriozko kalte- ordainak	128.488	180.589	184.465	124.731	154.153	137.426	132.093	155.494	155.284	173.449	126.921	129.394
Argitalpen-gastuak	687	10.459	41.165	21.051	19.492	21.813	22.220	18.262	18.279	17.794	17.903	12.388
2. kap. Ondasun arrunten et zerbitzuen gastuak	139.637	201.128	249.508	181.213	225.042	197.902	189.674	219.824	222.751	298.334	202.081	189.791
Inbertsio errealak	12.092	25.027	59.408	8.560	10.966	10.332	0	1.393	26.682	1.293	7.386	4.510
6. kapitulua. Inbertsio errealak	12.092	11.623	59.408	8.560	10.966	10.332	0	1.393	26.682	1.293	7.386	4.510
Guztira	238.261	338.874	438.145	318.924	367.068	346.274	324.333	359.392	388.306	427.355	340.602	314.781

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	Guztira
nizaren	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1	0	0	2
nizako Foru Dekretu	0	0	3	0	0	0	0	0	1	0	0	0	0	4
aren ntrakotasun-errekurtsoak tzea	1	1	1	0	2	1	0	2	0	0	2	0	5	15
omikotik	3	8	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	11
nkidetzak ioak	20	31	1	5	2	4	1	0	5	0	1	0	0	70
amenduen ktuak	18	14	36	45	20	30	21	18	25	20	32	24	18	321
alak zein okoak	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1
ikuspen-errekurtso stratiboak	5	0	9	3	2	6	1	0	0	3	3	3	1	36
-ordainen azioak	3	3	9	8	7	6	5	11	8	10	8	8	10	96
-egintzak erraztertzea	1	5	13	5	4	6	8	5	7	9	5	7	12	87
nteak	0	0	0	2	5	2	0	1	1	2	0	1	0	14
-kontratu edo hitzarmenen interpretazio, apen edo ipena, kontratista elarik	3	5	3	1	1	2	3	1	4	2	3	0	3	31
stelako gaiak	3	2	5	4	2	4	3	2	0	3	6	1	0	35
ztira	58	69	80	74	45	61	42	40	51	49	61	44	49	723

Iturria: 2012ko jardunari buruzko oroitidazkia. Nafarroako Kontseilua.